



Eskola Jazarpenaren aurkako Mundu Egunerako Adierazpena

2021eko maiatzak 2

Gizarte Hezkuntza bizikidetza da, eta bizikidetza pertsonen garapen osorako oinarrizko esparrua da. Zein agertoki hobea hezkuntza sistema baino, bizikidetza positiboko esparru batetik abiatuta, pertsona baten garapena bermatzeko?

Gizarte Hezitzailen Elkargoen Kontseilu Nagusiak bat egiten du eskola jazarpenaren aurka positiboki egiteko borrokarekin. Horretarako, gaur, maiatzak 2, Eskola Jazarpenaren aurkako Mundu Egunaren ospakizunera batuko gara, begirada bizikidetzaren eraikuntzan jarrita. Eraikuntza prozesu honetan, egunez egun hezkuntzaren helburu horretara, hots, pertsonen garapen osoa lortzen, iristeko bizikidetza eraikitzen lanean diharduten gizarte hezitzailen begirada dugu laguntzaile.

Eskola jazarpena gertakari konplexua da eta 5 eskola-umetatik 1ek jasaten du. Egitate horrek ondorio larriak izaten ditu bai biktimarentzat baita erasotzailearentzat ere.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuen arabera, Espanian 8 milioitik gora ikasle daude matrikulatuta unibertsitatetik kanpoko Araubide Orokorreko Irakaskuntzetan; horrek laster ikusarazten digu arazoa zenbaterainokoa den. Datu hauek gora egiten dute baldin-eta ikuspegi zabalago batetik, eta gertakari honekin gehiago lotuta, ikusleak ere sartzen baditugu; izan ere, funtsezkoak dira eskola jazarpenean, eta hezkuntzaren xede-ekintza izan behar dute horiek ere. Horri dagokionez, estatistiken arabera, 100 ikasletatik 47 ikusle pasiboak dira eskola-jazarpen kasuetan. Horrek agerian uzten du **gizarte-arazo honi modu egokian aurre egiten lagunduko duten bakerako eta Bizikidetza Hobetzeko programak sustatzearen premia eta garrantzia**.

Zorionez, autonomi erkidegoek eskola-jazarpen egoeretan eta era guztietako ziber-jazarpenetan ekiteko protokoloak prestatu dituzte. Hala ere, protokolo horiek kasua antzemandakoan aktibatzen dira. Aurrerapen handia da hori, baina **nazioarteko hainbat azterketa eta proposamenekin bat gatoz esatean oso garantzitsua dela prebentzioa eta bizikidetzaren sustapena**.

2002 urteaz geroztik, 6 autonomi erkidekok egin dute apustu ikastetxeetan gizarte hezitzialeak sartzearen alde: Extremadura, Gaziela Mantxa, Andaluzia, Kanariak, Balearrak eta Katalunia. Guztira 400 profesional baino gehiago ari dira bizikidetza eta Bakearen Kultura sustatzen.

Aurrerapen eta konpromiso handia da hori, eta Gizarte Hezitaileen Elkargoen Estatuko Kontseilu Nagusiak (GHEKN) **gainerako autonomi erkidegoak animatu nahi ditu ekimen honetara bildu daitzen. Bestalde, Espainiako Gobernuari eskatzen diogu irudi profesional hau sar dezala Haur eta Nerabeei Osoko Babesa emateko etorkizuneko Lege Organikoan.** Gure aburuz, ikastetxeek izan behar duten ongizate-koordinatzailearen lana gizarte hezitaile batek bete behar du, arau honek irudi horri esleitzen dizkion zereginak eta hezkuntza sistemaren 20 urteko ibilbidean profesional hauek betetzen jardun duten lana berbera baita.

Gizarte Hezkuntzako profesionalek lan eskerga egin dugu ikastetxeetako gizarte-ekintza arloan, eta hezkuntza komunitate osoak eskuragarri izan dezan jartzen dugu. Hainbat adibide ditugu hori erakusteko: ikasle bitartekarien prestakuntza, ziber-bitartekari taldeak osatu izana, irakasleei bizikidetza arazoetan prestakuntza ematea, eskola-jazarpenetarako eta ziber-jazarpenetarako protokoloetan aholku ematea, Hezkuntza Arrakasta Jarduketen sustapena, gatazkak elkarritzeta bidez konpontzea, genero indarkeriaren prebentziozko sozializazioa, Emozio Hezkuntzako programak lantzea, erkidegoetako liderrekin egindako lana eta sentimenduetan eta adiskidetasunean heztea. Horrek guztiak erakusten du Gizarte Hezkuntza 20 urte luzez aritu dela bizikidetza eraikitzen, eskola-jazarpenik gabeko espazioak sustatzeko modu gisa.

Gizarte Hezitaileen Elkargoen Kontseilu Nagusiak Ministerioa eta autonomi erkidegoak bultzatu nahi ditu Haur eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxe guztietan Gizarte Hezkuntzako programak lantzera, eta eskertu egin nahi dugu profesional hauek burututako jarduketak bere egin eta balioetsi dituzten hezkuntza komunitateko eragile guztiak eskainitako laguntza.

Hezkuntza komunitateen baitan Bakerako Hezkuntza eta Bizikidetza Hobetzeko ekintzak gauzatzeak hezkuntzaren jardunaren oinarrizko eragile izan beharko luke, horrek eramango baikaitu hezkuntza moderno eta inklusibora, non hezkuntza komunitate osoaren garapena bermatuko baita. Horrela, denon artean, indarkeria alde batera utzi eta gatazkak konpontzeko modu sortzaileen aldeko apustua egingo dugu. Hartara, eskolari ekarpen hau egingo diogu: asko eraiki eta berreraikitzeko dagoen une honetan, gizartearen aldaketa eta eraldaketarako eragile izango gara. *"Hezkuntza, altxor ezkutua"* bada, baliatu egin behar dugu eta gizartearen aldaketaren benetako eragilea izan dadin lortu.

#YoTambienConstruyoCONVIVENCIA

#LaEducaciónSocialesCONVIVENCIA

GIZARTE HEZKUNTZA SOZIALA EZ BADA, EZ DA XXI. MENDEKOA



Manifiesto por el Día Mundial contra el Acoso Escolar

2 de mayo de 2021

La Educación Social es convivencia y la convivencia es el marco básico para el pleno desarrollo de las personas. ¡Qué mejor escenario que el sistema educativo para garantizar este pleno desarrollo de la persona desde un marco de convivencia positiva!

Desde el Consejo General de Colegios de Educadoras y Educadores Sociales nos sumarnos a la lucha contra el acoso escolar con un menaje positivo. Para ello hoy, 2 de mayo, **nos unimos a la conmemoración del Día Mundial contra el Acoso Escolar poniendo la mirada en la construcción de la convivencia.** Un proceso constructivo, en el que nos acompaña la mirada de educadoras y educadores sociales que en su día a día trabajan para construir convivencia como forma de llegar a ese fin último de la educación: el pleno desarrollo de las personas.

El fenómeno del acoso escolar es complejo y afecta a 1 de cada 5 escolares, con graves consecuencias tanto para la víctima como para el acosador/la acosadora.

Según datos del Ministerio de Educación y Formación Profesional, en España hay matriculadas/os más de 8 millones de alumnas y alumnos en Enseñanzas de Régimen General no universitarias, lo que nos hace visualizar rápidamente el alcance del problema. Estos datos aumentan si desde una visión más amplia, y más acorde con el fenómeno, incluimos a las espectadoras y los espectadores, parte fundamental en el acoso escolar, que también debe ser objeto de acción educativa. En este sentido, las estadísticas reflejan que 47 de cada 100 alumnas y alumnos son espectadoras/es pasivos en situaciones de acoso escolar, lo que evidencia la

urgencia e importancia de promocionar programas de Educación para la Paz y la Mejora de la Convivencia que ayuden a afrontar con éxito este problema social.

Afortunadamente, las diferentes Comunidades Autónomas han desarrollado protocolos de actuación en situaciones de acoso escolar y ciberacoso en todas sus formas, sin embargo, estos protocolos se activan tras detectar el caso. Se trata de un aspecto importante, pero **coincidimos con los diferentes estudios y propuestas internacionales sobre la importancia de la prevención y la promoción de la convivencia.**

Desde el año 2002, 6 Comunidades Autónomas, han apostado por la incorporación de educadoras y educadores sociales en los centros educativos de Extremadura, Castilla la Mancha, Andalucía, Canarias, Baleares y Cataluña, sumando un total de más de 400 profesionales dedicados/as a la promoción de la convivencia y la Cultura de Paz. Todo un avance y un compromiso educativo que desde el CGCEES animamos a desarrollar en el resto de las comunidades autónomas y solicitamos al Gobierno de España la inclusión de esta figura profesional en las leyes de educación y en la futura Ley Orgánica de Protección Integral a la Infancia y la Adolescencia. Entendemos que la figura de la coordinadora o coordinador de bienestar, con el que deben contar los centros educativos debe ser una educadora o un educador social, ya que las funciones que esta norma le atribuye son exactamente las que estos profesionales vienen desarrollando en sus 20 años de trayectoria en el sistema educativo.

Desde la Educación Social contamos con una amplia trayectoria de acción social en los centros educativos que ponemos a disposición de toda la comunidad educativa. Propuestas como la formación de alumnado mediador, la creación de equipos de cibermediadoras y cibermediadores, la formación del profesorado sobre problemas de convivencia, el asesoramiento en protocolos de acoso escolar y de ciber acoso, la promoción de Actuaciones de Éxito Educativo, la resolución dialógica de conflictos, la socialización preventiva de la violencia de género, el desarrollo de programas de Educación Emocional, el trabajo con líderes comunitarios o la educación en sentimientos y en la amistad son algunos de los ejemplos de cómo la Educación Social contribuye desde hace 20 años a la construcción de la convivencia como forma de promocionar espacios libres de acoso escolar.

Desde el Consejo General de Colegios de Educadoras y Educadores Sociales, **animamos al Ministerio y a las Comunidades Autónomas a desarrollar programas de Educación Social en todos los centros educativos** de Educación Infantil y Primaria y de Educación Secundaria Obligatoria y agradecemos la colaboración ofrecida por todos los agentes de la comunidad educativa que han acogido y valorado las actuaciones desarrolladas por estos profesionales.

El desarrollo de acciones de Educación para la Paz y la Mejora de la Convivencia en el seno de las comunidades educativas deben ser el motor básico de la acción educativa que nos lleve a una educación moderna, inclusiva, que garantice el pleno desarrollo de toda la comunidad educativa, dejando de lado la violencia y apostando por formas creativas y participativas de resolver los conflictos. De esta forma, contribuiremos a la escuela como motor de cambio y transformación social en un momento en el que tenemos mucho que construir y reconstruir. Si “*La Educación Encierra un Tesoro*” debemos aprovecharlo y hacer de ella el auténtico motor de cambio social.



#YoTambienConstruyoCONVIVENCIA

#LaEducaciónSocialesCONVIVENCIA

SI LA EDUCACIÓN NO ES SOCIAL, NO ES DEL SIGLO XXI